

PROGRAMA

Ekainak 25, igandea. ONGI ETORRIA

Arratsaldean (ordua zehazteko) ongi etorria eta familiak elkartzea.

Ekainak 26, astehelena. AURKEZPENAK

09:00etan aurkezpena. Elkar ezagutzeko jokoak. Ikastaroaren berri eman eta 3 asteko programa azaldu.

Ondoren, euskara-eskolak. GAIAK: Euskal geografia eta hizkuntza. Euskararen historia.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

16:00etan Lazkao ezagutu. Ondoren, euskal sinbologiarekin kamisetak margotzeko tailerra.

Ekainak 27, asteartea. GASTEIZ + ARABAR ERRIOXA

09:00etan irteera Lazkaotik autobusez. 10:30ean Legebiltzarrera bisita. 13:00etan Foru Aldundira bisita.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

16:00etan Biasteri bisitatu. 18:00etan itzulera.

Ekainak 28, asteazkena. AZOKA + BASERRIAK

09:00etatik 13:30era ikasleen erdiek euskara-eskolak. GAIA: Azokak eta baserriak. Beste erdiek inguruko baserriren batera bisita gidatua.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etatik 19:00etara ikasleen erdiek euskara-eskolak. GAIA: Azokak eta baserriak. Beste erdiek inguruko baserriren batera bisita gidatua.

Ekainak 29, osteguna. OHITURAK + MITOLOGIA

09:00etan euskara-eskolak. GAIK: Joxemiel Barandiaran. Euskaldunon sineskeriak eta ohiturak. Mitologiako pertsonaiak.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etan Ataungo Barandiaran museora bisita. Ondoren, Jentilbaratza Kultur Elkartearen kale-antzerki emanaldia.

Ekainak 30, ostirala. ALBAOLA

09:00etan autobusez Pasaiara abiatu. 10:00etan Albaolako bisita gidatua. 12:00etan Maizpidera itzulera.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etatik 19:00etara euskara-eskolak. GAIK: Itsas-kultura, lanbideak. 20:00etan talo-tailerra eta ondoren erromeria.

Uztailak 1, larunbata. FAMILIEKIN EGUN LIBREA

Uztailak 2, igandea. FAMILIEKIN EGUN LIBREA

Uztailak 3, astelehena. EUSKAL MUSIKA + BERTSOLARITZA

09:00etatik 13:30era euskara-eskolak. GAIA: Ahozko inprobisazioa eta bertsolaritza. Ahozkotasuna munduan. Herri-musikaren historia.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etatik 17:00etara euskara-eskolak. GAIA: Ahozko inprobisazioa eta bertsolaritza. Ahozkotasuna munduan. Herri-musikaren historia.

18:00etan BAGA BIGA HIGA ikuskizuna Mikel Markez eta Eñaut Elorrietaren eskutik.

Uztailak 4, asteartea. ERRIBERRI + IRUÑEA

09:00etan irteera Lazkaotik autobusez. 11:00etan Erriberriko gazteluaren bisita. 13:00etan Nafarroako legebiltzarraren bisita.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etan Iruñea bisitatu. 18:00etan itzulera.

Uztailak 5, asteazkena. ARANTZAZU

09:00etan irteera Lazkaotik autobusez. 10:30ean Arantzazuko santutegiaren bisita. 12:30ean itzulera.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etatik 19:00etara euskara-eskolak. GAIAK: Euskal idazle, margolari eta eskulturgileak.

Uztailak 6, osteguna. LESAKA

09:00etan irteera Lazkaotik autobusez. 11:00etan Lesaka bisitatu. 13:00etan zubi-dantza Lesakan.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etan Amaiurreko gazteluaren bisita Gaizka Arangurenekin. 18:00etan itzulera.

Uztailak 7, ostirala. SEGURA

09:00etatik 13:30era euskara-eskolak. GAIAK: Antzinako eta gaur egungo ohiturak.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etan Segurara bisita. 17:00etan euskal dantzen tailerra eta ondoren erromeria.

Uztailak 8, larunbata. FAMILIEKIN EGUN LIBREA

Uztailak 9, igandea. FAMILIEKIN EGUN LIBREA

Uztailak 10, astelehena. GERNIKA-URDAIBAI

09:00etan irteera Lazkaotik autobusez. 10:30ean Gernikako Arbola, museoa, Gernikako juntetxea.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

14:30ean Gernika ezagutu. 16:30etan paddle surf-a egiteko aukera Mundakan. 18:00etan itzulera.

Uztailak 11, asteartea. DONOSTIA

09:00etan irteera Lazkaotik autobusez. 10:30ean Etxeparera bisita. 12:00etan Foru Aldundira bisita.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etan Donostia ezagutu. 18:00etan itzulera.

Uztailak 12, asteazkena. SUKALDARITZA + IDIAZABAL

09:00etatik 11:00etara euskara-eskolak. GAIAK: Euskal Herriko sukaldaritza.

11:30ean Ordiziako azokara bisita.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etatik 17:00etara euskara-eskolak. GAIA: Auzo-lana eta herri-mugimenduak.

17:00etan Biziola kooperatibara bisita.

Uztailak 13, osteguna. INDUSTRIA

09:00etatik 13:30era euskara-eskolak. GAIAK: Industrializazioa eta kooperatibismoa.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etan IRIZAR kooperatibara bisita.

Uztailak 14, ostirala. BILBO

09:00etan irteera Lazkaotik autobusez. 10:30ean Foru Aldundira bisita.
13:00etan EITBra bisita.

BAZKARIA ETA ATSEDENA

15:00etan San Mamesera bisita. 17:00etan Guggenheimerera bisita.
18:00etan itzulera.

Uztailak 15, larunbata. AGUR JAIALDIA

12:00etan gazteen eta familien arteko jolasak.

13:00etan ekitaldia.

BAZKARIA

Ondoren, AIKO taldearen emanaldia, Lazkaoko erraldoiak, buruhandiak, zezen suzkoa...

Uztailak 16, igandea. ITZULERA

Egun librea familiekin eta aireportura itzulera.

EDUKIAK ETA HELBURUAK

- Nork bere burua aurkeztea
- Nork bere herria deskribatzeko esaldiak eta hiztegia ikastea. Herrien eta hirien deskribapenak ulertzea eta deskribapen laburrak egitea.
- Nork bere Euskal Etxearen aurkezpena egitea.
- IZAN eta UKAN aditzak lantzea.
- Informazioa eskatzen trebatzea. Aditz lokuzioak (behar, nahi izan...).
- Erosketak egiteko erabili beharreko baliabideak lortzea. Zenbakiak, koloreak, balio izan...
- Gutunak eta emailak idaztea. Egunean zehar egindakoa kontatzen ikastea. Aditz aspektua: burutua. Orduak lantzea.
- Jatetxe eta tabernetan moldatzeko baliabide komunikatiboak lantzea. Galderetako BA eta partitiboa RIK lantzea.
- Planak egiten trebatzea. Etorkizunaz mintzatzeko gaitzea. Lekuzkoak, NON, NORA, NONDIK lantzea.
- Nork bere errutinen berri ematea: ohiturazkoa lantzea. Baita urtaroen eta hilen izenak ikastea ere.
- Gustu eta zaletasunei buruz hitz egin eta idaztea. T(Z)EA nominalizazioa. NOR-NORI aditza.
- ZERTAN ARI ikastea, sukaldeko hiztegia erreparasatzea.
- Lanbideez hitz egitea, lanbideak deskribatzea.
- Arbasoen bizitzaz mintzatzeta. Lehenaldia eta denborazkoak lantzea.